

Gezala

AUDITORIUMA

MAIATZA - MAYO

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 3	22:00	SOLDADOS DE SALAMINA
LARUNBATA 5	16:30	BOSTAK 8
OSTEGUNA 10	22:00	COLLATERAL
LARUNBATA 12	16:30	HARTZ TXIKI 4
OSTEGUNA 17	22:00	CARTA DE UNA MUJER DESCONOCIDA
LARUNBATA 19	16:30	HIRUKIAK: ROMEO ETA JULIETA / BIZARURDIN DAGO
OSTEGUNA 31	22:00	MARS ATTACKS!!!

KULTUR HOTSAK

eguna/día	ordua/hora	ekintzak
		KONTZERTUA
OSTIRALA 4	22:30	FERNANDO SAUNDERS
		ANTZERKIA
OSTIRALA 11	19:30	EDURNE AGIRREZABALA "Ogiyik karri etzun semia"
		HAUR ANTZERKIA
OSTIRALA 18	17:30	TXALO S.L. "Pizti hezlea"
		KONTZERTUA
OSTEGUNA 24	22:30	ARRATE AROZENA
MAIATZA 03 - 31		ERAKUSKETA
J.A. ARETA GOÑI "JUXE" -		"On stage-Zuzen zuzenean"
		ASTELEHENETIK OSTEGUNERA: 9:00-13:00 / 17:00-20:00
		OSTIRALAK: 9:00-13:00 / 17:30-20:30 - LARUNBATAK: 17:30-20:30




Fernando Saunders

Maiatzak 4, Ostirala • 22:30

10,00€

Gezala Auditoriuma



Gitarra jotzen birtuosoa da Fernando Saunders, baina ez hori bakarrik. Konposatu egiten du, kantatu eta ekoiztu. Hamilton Bohannon taldearekin egin zen ezagun eta baita geroago rock jazz fusioa egiten zuen The Jeff Black taldearekin. Saundersek hainbat musikarirekin egin ditu grabazioak, Steve Winwood, Eric Clapton, Jimmy Page, Joan Baez, John McLaughlin... baita Ruper Ordorikarekin 2001ean grabatutako 'Hurrengo goizean' diskan.

Edonola, Saunders jauna norbaiten erlazonatu beharko bage-nu, hori Lou Reed handi eta apartekoarekin litzateke. Lou Reeden baxujole ia finkoa izan da urteetan zehar. 80. hamarkadan Lou Reedek makro kontzertuak egiten zueneko garai haietan ere berarekin zebilen.

Bere azken diskoa, "I Will Break Your Fall", aurkeztuko digu

Lezon. Sentsibillitate eta gustu ezin hobeaz osatutako abesti sorta bikaina.

Oharra: Sarrerak erreserbatzeko aukera duzu 943-51.34.76 telefonora deituta.

Arrate Arozena

"1000 kilometro nola neurtu"

5,00€

Maiatzak 24, Osteguna • 20:30

Gezala Auditoriuma



1000 kilometro nola neurtu. Urtez urte, pausoz pauso, ikusitakoa eta ikasitakoa kantua-ren ahotsez nola aurkeztu...

1000 kilometro herrimiña beiraren bestalde-an zer den erakutsi digun bide luzea izan dai-teke; bisitan doan autobusaren bidea, hain zuzen; baina, baita denboraren kontzeptu erlatiboa ere. Izan ere, denboraren hostoak sorgindutako ilunabarrean erortzen direne-an, ezustean, odola borborka jartzen baitzaigu; borborka 1000 kilometro korritu izan bagenitu bezalaxe; borborka zuk eta nik gela zero bihurtu dugula jakingo balu bezalaxe.

Arrate Arozena: ahotsa eta gitarra • Arkaitz Miner: gitarra, biolina eta mandolina.


Edurne Agirrezabala

"Ogiyik karri etzun semia"

0,00€

Maiatzak 11, Ostirala • 22:30

Gezala Auditoriuma



Komedia honek ama batek unibertsitatean ikasten duen semearekin duen harremana kontatzen digu bakarriketa baten bidez. Harri-duraz begiratzen du amak zenbateko aldea dagoen berak eman nahi zion heziketaren eta gaur egun ikusten duenaren artean. Semearekin komunikatu nahian, amak argi ikusten du birziklatzeko premia duela.

Algaren eta une hunkigarrien artean, gazteei eta helduei egokitzen zaie, emanaldian bi mundu horien antzezpena egiten baita.

ANTZEZLEAK: Edurne Agirrezabala • IRAUPENA: 50 minutu gutxi gorabehera.

Txalo S.L. "Pizti hezlea"

Maiatzak 18, Ostirala • 17:30

0,00€

Gezala Auditoriuma



Eider oheratzeko beldur da. Beldurra dio gauari, isiltasunari eta iluntasunari. Mesano-tzeko argia piztuta uztea alferrik da, argiaren itzalek are gehiago izutzen baitute. Gaez amesgaizto okerrenak bisitan joaten zaizkio: zakuaren gizona, sorgina eta haren aztikeriak,

haurrak jaten dituen erraldoia eta abar. Baina hori guztiarekin amaitzeko unea iritsi da, Eiderrek arrastoan sartuko ditu denak. Gau honetan gauzak aldatu egingo dira. Akabo iluntasunari eta isiltasunari beldurra. Gaueko piztien hezle bihurtuko da; aurrerantzean, PIZTI HEZLEA izango da. Haur-literaturako Hans Christian Andersen saria jaso duen Ana Maria Machado idazle brasildarrak idatzitako hiru ipuinetan oinarrituz egin da obra hau.

ZUZENDARITZA: Begoña Bilbao • ANTZEZLEAK: Aitziber Garmendia, Idoia Sanchez, Kepa Errasti • MUSIKA: Jose Urrejola • IRAUPENA: 60 minutu.


J.A. Areta Goñi 'Juxe'

"On Stage-Zuzen zuzenean" > Argazkia

2007-05-03 / 05-31 Kultur Aretoa (Donibane kalea 2)

Astelehenetik ostegunara: 9:00-13:00 / 17:00-20:00

Ostiralak: 9:00-13:00 / 17:30-20:30 • Larunbatak: 17:30-20:30




"ON STAGE-ZUZEN ZUZENEAN" izeneko, dokumentu grafiko zabala da. 150 argazkik gora ditu, rock & rollaren munduan diharduten bertako, estatuko nahiz nazioarteko underground taldeei ateratakoak. Argazki horiek guztiak eszenatokiaren aurrean aterata daude, entsegu-lokaletan edo aire zabaleko eszenatoki-tan, hain zuzen ere. Are gehiago, hainbat taldeekin biran ere aritu izan da, lan osatuagoa lortze aldera. "ON STAGE-ZUZEN ZUZENEAN" proiektuarekin 50 erakustalditik gora egin ditu.

Lezoko zine agenda

MAIATZA MAYO

2007



Lezoko Unibertsitateko
Udala

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**

OSTEGUNA • JUEVES

SOLDADOS DE SALAMINA

Espainiako gerra zibilaren berri ematen duten pelikula ugariak dira herrialde horretako zinemagintzan. Trueba, kalitateari dagokionez beti da bermearen sinonimo. Beraz, gerra zibilaren inguruko kalitatezko pelikula dastatzeko aukera.

2003, Espainia. 112 min. David Trueba.

Ariadna Gil, Joan Dalmáu, Rafael Fontseré, Diego Luna.

COLLATERAL

Tom Cruise 'guapitox' da protagonista atsedetik emango ez dizun ekintza filme honetan. Droga trafikatzailer batzuk epailearen aurrean aurkeztu behar dute eta lekukoek deklaratu ez dezaten lehenago hil egingo dituzte.

2004, AEB. 120 min. Michael Mann.

Tom Cruise, Jamie Foxx, Peter Berg, Jada Pinkett Smith.

CARTA DE UNA MUJER DESCONOCIDA

Pekinen kokatua, gau batean gizon bat etxera iristen da eta gutun bat du zain. Irakurtzen hasita berak jakin gabe, berarekin maitemindua egon den emakume batena dela konturatzen da. Hunkigarria eta ederra! Donostiako 2004ko zinemaldia zilarrezko maskorra jaso zuen.

2004, Txina. 120 min. Xu Jinglei.

Jue Huang, Wen Jiang, Huang Jiao, Yuan Lin.

MARS ATTACKS!!!

50. hamarkadako zientzia fikziozko pelikulen parodia zoragarria. 'Mundu' bereziak sortzen apartekoa den Tim Burtonek sortutako beste adibide zoragarri bat. Umorea soberan duen pelikula oso sinpatikoa!

1996, AEB. 106 min. Tim Burton.

Jack Nicholson, Glen Close, Annette Benning, Pierce Brosnan.

LARUNBATA • SÁBADO

BOSTAK 8

Osaba Quentiek bilera bat du bi zientzialari ospetsuekin. Hurrengo egunean zientzialarien arrastorik ere ez dagoenean bahiketaren susmoa areagotu egingo dira. Bigarren abentura bat ere izango da ikusgai.

2000, EB. 100 min. Hainbat.

J.Rooper, M.Williamson, Paul Child, Laura Petela, C.Good.

HARTZ TXIKI 4

Marrakzi bizidun hauetako protagonista Hartz Txiki da, hartz ameslari bat. Pelikula honetan Hartz Txiki eta bere lagunak abenturak ikusteko aukera izango duzue. Jakin min eta irudimen handiz leku berriak ezagutzera joango dira, eta gauza ilugarriak gertatuko zaizkie.

1996, Kanada. 70 min. Raymond Jafelice.

Marrakzi bizidunak.

HIRUKIAK: ROMEO ETA JULIETA / BIZARURDIN

Hiru ahizpak ipuin klasikoetan oinarritutako istorioekin datozkigu gaurkoan ere. Alde batetik Romeo eta Julietaren istorio hunkigarria. Bestetik, Bizarudinen beldurrezko pasadizoak.

2003, Catalunya. 65 min. Hainbat.

Marrakzi bizidun.